


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



**Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado
Osakidetza-Servicio Vasco de Salud**

2014





AURKIBIDEA

LABURDURAK	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 OSAKIDETZA.....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	8
II.2 OSATEK, SA.....	10
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	10
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	10
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	11
III.1 OSAKIDETZA.....	11
III.1.1 Kontabilitatea: Hornitzaileei ordainketak.....	11
III.1.2 Langileria-gastuak	11
III.1.3 Kontratazioa	11
III.2 OSATEK, SA.....	13
III.2.1 Kontratazioa	13
III.2.2 Kontabilitatea: Hornitzaileei ordainketak.....	13
IV. URTEKO KONTUAK.....	14
IV.1 OSAKIDETZA.....	14
IV.2 OSATEK, SA.....	20
ALEGAZIOAK	25
ABREVIATURAS	45
I. INTRODUCCIÓN.....	47



II. OPINIÓN.....	48
II.1 OSAKIDETZA.....	48
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	48
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales	48
II.2 OSATEK, S.A.....	50
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	50
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales	50
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	51
III.1 OSAKIDETZA.....	51
III.1.1 Contabilidad: Pagos a proveedores	51
III.1.2 Gastos de personal.....	51
III.1.3 Contratación	52
III.2 OSATEK, S.A.....	53
III.2.1 Contratación	53
III.2.2 Contabilidad: Pagos a proveedores	53
IV. CUENTAS ANUALES	54
IV.1 OSAKIDETZA.....	54
IV.2 OSATEK, S.A.....	60
ANEXOS	65
A.1 Naturaleza y normativa aplicable	65
A.2 Provisiones y contingencias de personal.....	67
A.3 Gastos de personal	69
A.4 Contratación e Inversiones	70
A.5 Osatek, S.A.....	73
ALEGACIONES	77

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 26a

Vitoria-Gasteiz, 26 de mayo de 2016



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
EA	Esparru Akordioa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAETB	Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Testu Bategina.
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
EASL	8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EKB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
EM	Erresonantzia Magnetikoa.
IKT	Informazio eta Teknologietako Teknologiak.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina.
TVCP/HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
ZEI	Zerbitzu erakunde Integratua.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), bera arautzen duen 1/1988 Legean eta Lanerako Urteko Programan ezarritakoari jarraiki, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Osakidetza) urteko kontuen fiskalizazio txostena mamitu du, 2014ko ekitaldiari buruzkoa.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: aplikagarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak "Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak" idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Berebat, Osatek, SA ere fiskalizatu dugu, Osakidetzak kapital sozialaren % 100eko jabetza duen sozietate publikoa.

Bestetara, kanpo enpresek egindako Osakidetza eta Osatek, SAren urteko kontuen eta aurrekontu eta legea betetzen dutelako auditoria txostenak euskarritzen dituzten lan paperak ere aztertu ditugu. Berebat, aplikagarria den legezko araudia bete izanari buruz Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Kontrolerako Bulegoak egindako txostenak aztertu ditugu.

Fiskalizazio lanak sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu dira eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia euskarritzeko.

Osakidetza osasun gaietan eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko Sailari atxikia dago; berezko lege-nortasuna du eta jarduteko gaitasun osoa du osasun zerbitzuak emateko, bere baitako diren zerbitzu erakunde publikoen bitartez, zeinak nortasun juridikorik ez duten, baina bai, ordea, kudeatzeko autonomia.

2014ko abenduaren 31n Erakunde Nagusiaz gain, 22 zerbitzu erakunde existitzen dira. 6 ospitale, 7 zerbitzu erakunde integratu, oinarritzko osasun-laguntzako 4 eskualde, 3 osasun mentaleko zentro, Larrialdiak eta Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroa. Osatek, SA enpresak ere badu zerbitzu erakunde izaera.

II. IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Kontratazioa

1. Osakidetzako zerbitzu erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzte produktu edo ondasun higigarrien erosketak, zeinetan kontratazioaren xedea zatikatu den; horrek publikotasun eta lehia printzipioa urratzen du (SPKLTBaren 86. art.). Botiken hornidurari dagokionez, aztertu diren 30,1 milioi euroren erosketetatik 15 milioi euroren erosketetan egin da huts hau, hau da, % 49,7an; gainerako horniduretan produktu homogeneoen erosketa zatikatu egin da aztertutako 91,3 milioi euroren horniduretatik 82,8 milioi euroren horniduretan, hau da horien % 90,8an (ikus A.4).
2. Basurtoko Unibertsitate Ospitaleko Areilza doktorearen kirurgia saileko bizkortze gunea zaharberritzeko obraren espedientean, 4,9 milioi euroan esleitu zenean, aldaketak baimendu dira hasiera batean esleitutako zenbatekoarekiko, aurreikusitako instalakuntzak indarreko araudi berrira egokitzearen, 1,2 milioi euroren zenbatekoan; horrek % 40ko igoera izan duela esan nahi du eta honenbestez, nabarmen eraldatu direla hasierako kontratuaren oinarritzko baldintzak, SPKLTBaren 107.2 eta 3 artikuluan aurreikusitakoarekiko. (ikus A.4 3. espedientea).

Epaitegi honen iritzira, aurreko bi paragrafoetan zehaztu diren ez-betetzeak alde batera, Osakidetzak zuzentasunez bete du 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Insalud-etik datorren langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuko langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere Obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak nagusiki kutxa irizpidea darabil eta 2014an gastu modura ekitaldian ordaindutako 7,1 milioi euroak jaso ditu.

Ezargarria den finantza informazioko arau-esparruari jarraiki, pentsio osagarriek eta antzeko beste batzuek sortutako pasiboak azterketa aktuariaren bitartez zenbatetsi behar dira eta sortzapean printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek bere pasibo aktuarialak 110,3 milioi euroan kuantifikatu ditu 2014ko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura erregistratu (ikus A.2).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2. Osakidetzak ebazteko ditu garbiketa zerbitzuaren emakidadun diren enpresetako langileen demanda kolektiboak, 2008tik 2010era bitarteko ekitaldietako lanbide-karreraren kontzeptuko ordainsariei dagokienez. 2015ean Osakidetzako garbiketa zerbitzuaren emakidadun diren enpresen hitzarmen kolektiboa izenpetu da 2011tik 2017ra bitarteko urteetarako eta bertan lanbide-karreragatik egiten diren erreklamazioak zein modutara ordainduko diren zehazten da. Kolektibo honi ordaindu beharreko konpromisoen balioespena 11,2 milioi eurorena da; horri aurre egiteko 6 milioi euroren hornidura zuzkitu da; horren arabera, bada, 5,2 milioi euroren konpromisoak estaldurarik gabe daude.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenen ondorioak alde batera, Osakidetzaren Urteko Kontuek 2014ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2014ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren eta ekitaldian eragiketen emaitzen isla zuzena erakusten dute.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 OSATEK, SA

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Osatek, SAK zuzentasunez bete du 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Osatek, SAREN Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2014ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, 2014ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 OSAKIDETZA

III.1.1 KONTABILITATEA: HORNITZAILEEI ORDAINKETAK

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 3. Xedapen Gehigarriak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2014ko urtean legezko 30 eguneko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 602,8 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 79,1 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 12 egunean gainditu da. Bestetik, 2014ko abenduaren 31n ordaintzeke zegoen saldotik 30,5 milioi euroren zenbatekoak legeak horretarako finkatzen duen 60 eguneko legezko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.

III.1.2 LANGILERIA GASTUAK

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Osakidetzaren egiturazko plantilla osatzen duten 25.807 lanpostuetatik 521 langile finko eta bitartekoen ordainsariak aztertu ondoren, honako huts hauek azaleratu ditu:

- 81 izendapenetan ez dago erabilitako prozeduraren dokumentuzko oinarririk.
- 26 espedientetan zerbitzu eginkizunetarako ezarritako 2 urteko epemuga gainditu da; eta 30 espedientetan, maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko epea.
- 9 kasutan nominako lanpostu funtzionala eta izendapenezkoa ez datoz bat, edo ez dira baliokideak.
- Aldi baterako osagarriei dagozkien arautegi berariazkoak badiren arren, hala nola, mediku zaintzak, maila jasoagoko egitekoak, txandak, gaueko txandak, jaiegunak eta kokalekua, autokontzertazioa eta abar, oro har, arauak hausten jarraitzen da, egiaz gauzatutako zerbitzuen egiaztatzea egiten ez delako eta zerbitzu horiek ez dituelako organo eskudunak onartzen.

Halaber, behin-behineko langileen 64 espediente aztertu dira eta horietatik 29 izendapenetan edo horien luzapenetan egin beharreko zerbitzuen eta horien izaeraren identifikazioa falta da eta ez da justifikatzen LOSEren 26.5 artikuluan aurreikusitakoiei dagozkienik; honenbestez, ez da horien objektibotasuna bermatzen.

III.1.3 KONTRATAZIOA

2014an gauzatutako kontratazioko 48 espedienteren lagina aztertu dugu, 232 milioi eurorena, eta lehenagoko ekitaldietan gauzatutako 19 espedienterena, urte horretan aldatu,



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

luzatu edo egikaritu direnak, 112 milioi euroren zenbatekoan. Aztertutako espedienteen zerrenda A.4 atalean xehatua dago.

2014-AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Pleguek akatsak dituzte esleipen irizpideak balioztatu eta haztatzeko metodoak zehazterakoan hornidurako 3 espedientetan eta zerbitzuetako 5etan, guztira 24,9 milioi euroan esleitutakoak (SPKLTBaren 150. art.) (24, 26, 28, 29, 32, 33, 34 eta 36 zk. esp.).
- Pleguek esleipen hartzailea bermea eratzetik salbuesten dute horretarako justifikaziorik gabe zerbitzuko 2 espedientetan, 9,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (SPKLTBaren 95.1 art.) (52 eta 53 zk. esp.).
- Hornidurako 2 espedientetan eta zerbitzuetako 1ean, guztira 17 milioi euroan esleitutakoetan, pleguetan ez dira balizko aldaerak jasotzen (SPKLTBaren 147. art.) (25, 29 eta 49 zk. esp.).
- Guztira 4,3 milioi euroan esleitutako hornidurako 3 espedientetan, BABA ez da esparruakordio baten ezaugarrietara egokitzen (SPKLTBaren 9.3 art.) (26, 27 eta 28 zk. esp.).
- Guztira 43 milioi euroan esleitutako 3 obra espedientetan, hornidurako 3tan eta zerbitzuetako 3tan (SPKLTBaren 160.1 art.) (25, 33, 47, 49, 53 eta 58 zk. esp.).
- Guztira 18,2 milioi euroan esleitutako hornidurako 2 espedientetan eta zerbitzuetako batean iragarkiak ez du kontratuaren balioetsitako balioa adierazten (SPKLTBaren 142. art.) (24, 25 eta 49 zk. esp.).
- Guztira 45,7 milioi euroan esleitutako obra espediente 1ean, hornidurako 5etan eta zerbitzuetako 5etan esleipenaren ebazpena epez kanpo egin da (SPKLTBaren 161. art.) (21, 32, 36, 40, 45, 56, 60, 65, eta 66 zk. esp.).
- Guztira 32,9 milioi euroan esleitutako hornidurako 4 espedientetan eta zerbitzuetako 5etan kontratua gauzatu izanaren publikotasuna epez kanpo egiten da BOEn eta/edo ez da batere egin DOUEn (SPKLTBaren 154 art.) (24, 39, 44, 47, 53, 55, 56, 57 eta 58 zk. esp.).

Gainera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak aztertutako 17 zerbitzu erakundetan guztira 3,6 milioi euroren zenbatekoan kontratu txiki modura izapidetutako inbertsioen erosketan, Osakidetzak zatikatu egin du kontratazioaren xedea 6 zentrok gauzatutako erosketetan, 1,4 euroren zenbatekoan, eta horrek urratu egiten ditu legez kontratatzeke ezarritako prozedurak. Guztizkotik % 32 “Erabilera klinikoaren duen makineria” kontuko da (ikus A.4).

2013-AN ETA LEHENAGOKO EKITALDIETAN GAUZATUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 30,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 1 obra espedientetan, hasierako egikaritzea epea luzatu egin da; honenbestez, sektore publikoaren kontratazioan buru egiten duen funtsen erabilera eraginkorra ez da bermatu (1 esp.).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 OSATEK, SA

III.2.1 KONTRATAZIOA

- Telelaguntza bidezko kontratua luzatzeko espedientean ez da 620.545 euroren aldaketa inplizitua gauzatu eta horrek, esleipen aurrekontu gehienekoa % 10,3 gainditzea eragin du. Gainera, luzapena gauzatu den unean zenbateko berriak 650.000 euroan gainditu du zerbitzu horretarako Enplegu eta gizarte ekintza Saila kudeatzeko gomendioan 2014rako esleitutako kopurua.
- Erresonantzia magnetikorako bobinen mantentze-lan eta hornidura espedienteak oso-osoarik aldeztu aurretik ordaindu dira eta inongo bermerik eskatu gabe; mantentze-lanen kontratua 926.688 euroan eta 2 urteko eperako esleitu zen eta hornidura kontratua, berriz, 1,1 milioi euroan 4 urtetarako. Inguruabarrek hala gomendatzen dutenean pleguek horretarako aukera ematen duten arren, ez dira inguruabar horiek justifikatu eta nolana den ere, gomendagarria da bermea eskatzea SPKLTBaren 216.2 eta 3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Bestetik, lehenengo kontratuan ez da jaso kontratazio-jarraibideen 4. klausulak aurreikusten duen administrazio-kontseiluaren baimena, kontratuaren balioak urteko 400.000 euroak gainditu dituzten ordainketa obligazioak gainditu dituelako.

III.2.2 KONTABILITATEA: HORNITZAILEEI ORDAINKETAK

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 3. Xedapen Gehigarriak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2014ko urtean legezko 30 eguneko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 2,4 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 16,8 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 38 egunean gainditu da. Bestetik, 2014ko abenduaren 31n ordaintzeke zegoen 297.974 euroren zenbatekoak, legeak horretarako finkatzen duen 60 eguneko legezko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.

**IV. URTEKO KONTUAK****IV.1 OSAKIDETZA**

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
AKTIBOA	2014	2013
AKTIBO EZ ARRUNTA	963.729	977.038
Ibilgetu ukiezina.....	12.346	15.260
Aplikazio informatikoak.....	12.346	15.260
Ibilgetu materiala.....	946.060	956.448
Lur-sailak eta eraikuntzak.....	738.063	748.958
Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala.....	120.618	141.218
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	87.379	66.272
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak.....	4.352	4.352
Ondare baliabideak.....	4.352	4.352
Finantza inbertsioak epe luzera.....	971	978
Hirugarrenei kredituak.....	970	977
Bestelako aktibo finantzarioak.....	1	1
AKTIBO ARRUNTA	312.538	302.684
Izakinak.....	41.911	39.303
Botikako produktuak.....	17.748	15.571
Kontsumoko osasun materiala.....	21.480	21.015
Bestelako hornidurak.....	2.683	2.717
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b.	162.770	190.750
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	2.498	3.102
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	149.577	176.946
Askotariko zordunak.....	970	1.104
Langileria.....	9.549	9.598
Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk.....	176	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	248	312
Bestelako aktibo finantzarioak.....	248	312
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	853	1.159
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....	106.756	71.160
Diruzaintza.....	1.596	2.278
Best. aktibo likido baliokide batzuk.....	105.160	68.882
AKTIBOA GUZTIRA	1.276.267	1.279.722



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2014	2013
ONDARE GARBIA		1.001.387	1.013.955
FUNTS PROPIOAK			
Funts soziala		18.411	18.235
Aurreko ekitaldietako ondorioak		26.547	26.507
Geldikina	26.547		26.507
Ekitaldiaren emaitza		91	40
JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK		956.338	969.173
PASIBO EZ ARRUNTA		14.156	14.877
Epe luzeko hornidurak		1.394	1.881
Bestelako hornidurak	1.394		1.881
Epe luzeko zorrak		12.762	12.996
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	12.762		12.996
PASIBO ARRUNTA		260.724	250.890
Zorrak epe laburrera		18.786	15.330
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	18.786		15.330
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk		241.696	235.319
Hornitzaileak	120.249		117.294
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak	1.855		1.784
Askotariko hartzekodunak	3.637		2.662
Langileria	9.742		9.989
Bestelako zorrak administrazio publikoekin	106.213		103.590
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		242	241
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		1.276.267	1.279.722



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2014	2013
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifratik zenbateko garbia	2.473.229	2.425.175
Zerbitzu emakida	2.473.229	2.425.175
Hornidurak	(608.707)	(603.272)
Botika produktuen kontsumoa.....	(227.744)	(226.483)
Osasun materialaren kontsumoa.....	(242.432)	(235.026)
Beste hornikuntza batzuen kontsumoa	(21.217)	(23.212)
Kanpoko beste gastu batzuk.....	(117.017)	(118.592)
Lehengaien eta bestelako horniduren narriadura	(297)	41
Bestelako ustiapen sarrerak.....	33.571	31.439
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	29.380	29.358
Ekitaldiaren emaitzara xertatutako ustiapeneko diru-laguntzak	4.191	2.081
Langileria-gastuak.....	(1.735.152)	(1.689.603)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.382.615)	(1.348.905)
Gizarte zamak	(352.537)	(340.698)
Bestelako ustiapen gastuak	(162.220)	(163.103)
Kanpoko zerbitzuak.....	(154.561)	(156.313)
Tributuak.....	(502)	(497)
Merkat. eragiket.gatik galerak, narriad. eta hornig. bariatz.	(3.101)	(2.394)
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	(4.056)	(3.899)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(58.590)	(61.637)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste	58.841	61.721
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	(738)	(564)
Narriadura eta galerak	(738)	(568)
Besterenganatzeagatik emaitzak eta beste.....	-	4
USTIAPENAREN EMAITZA	234	156
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideen sarrera finan.	7	6
Hirugarrenetikozorreatik finantza gastuak	(149)	(122)
Trukaneurri aldeak.....	(1)	-
EMAITZA FINANTZARIOA	(143)	(116)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	91	40
ERAG. JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	91	40
EKITALDIAREN EMAITZA	91	40



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2014	2013
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	91	40
ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK		
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	46.006	45.202
ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	46.006	45.202
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA		
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(58.841)	(61.721)
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(58.841)	(61.721)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(12.744)	(16.479)

ONDARE GARBIAZUZENEAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan					
	FUNTS		AURREKO	JASOTAKO DIRU-LAG.		
	SOZIALA	ERRETS.	EKITALD. EMAITZAK	EKITALD. EMAIT.	DOHAINT. ETA LEGATUAK	GUZTIRA
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	18.110	15.192	(37)	11.352	985.692	1.030.309
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	40	(16.519)	(16.479)
Akziodunekiko eragiketak						
Funts sozialera ekarpena.....	125	-	-	-	-	125
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	-	11.315	37	(11.352)	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	18.235	26.507	-	40	969.173	1.013.955
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	91	(12.835)	(12.744)
Akziodunekiko eragiketak						
Funts sozialera ekarpena.....	176	-	-	-	-	176
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	-	40	-	(40)	-	-
2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA	18.411	26.547	-	91	956.338	1.001.387



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2014	2013
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	34.510	(22.088)
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	91	40
Emaitzari doiketak	2.781	(16.960)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	58.590	61.637
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak	3.397	2.352
Zuzkiduren aldaketa	184	445
Diru-laguntzen egoketa.....	(60.271)	(63.802)
Baja eta besterenganatzeengatik emaitzak.....	738	568
Finantza sarrerak	(7)	(6)
Finantza gastuak.....	149	122
Trukaneurri aldeak.....	1	-
Bestelako sarrerak/gastuak.....	-	(18.276)
Kapital arruntean aldaketak	31.638	(5.171)
Izakinak	(2.904)	(1.725)
Zordunak eta kobratz. bst kontu batzuk	27.501	10.547
Beste aktibo arrunt batzuk	305	(420)
Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batzuk.....	6.377	(12.854)
Beste pasibo arrunt batzuk	1.029	4
Arruntak ez diren beste pasibo batzuk.....	(670)	(723)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	-	3
Interesen ordainketak	-	(3)
Interesen kobrantzak	-	6
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(41.086)	(55.572)
Inbertsioengatik ordainketak.....	(42.711)	(57.394)
Ibilgetu ukiezina/materiala	(41.165)	(55.890)
Bestelako aktibo finantzarioak	(1.546)	(1.504)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	1.625	1.822
Bestelako aktibo finantzarioak	1.625	1.822
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	42.173	62.654
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	42.556	61.037
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	42.556	61.037
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	(383)	1.617
Beste zor batzuen jaulkipena	-	2.000
Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa	(383)	(383)
TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA	(1)	-
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	35.596	(15.006)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	71.160	86.166
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	106.756	71.160



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2014-KO ABENDUAREN 31-N (*) Euroak milakotan

INBERTSIOAK/ FINANTZAKETA	AURREKONTUA				ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.	GAUZAT.		
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera	44.524	1.773	46.297	46.026	(271)	99,4
Ibilgetu ukiezina	2.548	100	2.648	3.461	813	130,7
Ibilgetu materiala.....	41.976	1.673	43.649	42.565	(1.084)	97,5
Finant. inber. igoera eta ondare baliab. jaits.....	3.218	-	3.218	1.723	(1.495)	53,5
Finan. pasibo baliabid. jaitsiera (itzulketa eta amort.)..	-	-	-	1.913	1.913	-
Truke tipoen bariazioen ondorioa.....	-	-	-	1	1	-
Eskudiru edo baliokideen igoera garbia.....	-	-	-	35.596	35.596	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	47.742	1.773	49.515	85.259	35.744	172,2
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu positiboak	-	-	-	32.005	32.005	-
Transf., diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	44.524	1.597	46.121	46.006	(115)	99,8
Ondare baliab. igoera eta finantza inberts. jaits.....	3.218	176	3.394	2.036	(1.358)	60,0
Ondare baliabideen jaulkipena.....	-	-	176	176	-	100,0
Bestelako finantza inbertsioak.....	3.218	-	3.218	1.860	(1.358)	57,8
Pasibo finantz. baliabideen igoera	-	-	-	5.212	5.212	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	47.742	1.773	49.515	85.259	35.744	172,2

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2014-KO ABENDUAREN 31-N (*) Euroak milakotan

GASTUAK/INBERTSIOAK	AURREKONTUA				ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.	GAUZAT.		
Langileria-gastuak	1.720.014	16.034	1.736.048	1.735.152	(896)	99,9
Soldatak, lansariak eta antzekoak	1.381.710	1.000	1.382.710	1.382.615	(95)	100,0
Gizarte zamak eta beste	338.304	15.034	353.338	352.537	(801)	99,8
Funtzionamendu gastuak.....	766.783	-	766.783	766.928	145	100,0
Hornidurak	600.107	-	600.107	611.657	11.550	101,9
Kanpoko zerbitzuak.....	166.196	-	166.196	154.561	(11.635)	93,0
Tributuak.....	480	-	480	502	22	104,6
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	-	-	-	208	208	-
Finantza gastuak.....	-	-	-	149	149	-
Erak. emateko diru-lag. eta egin beharreko transf.....	4.199	150	4.349	3.848	(501)	88,5
Ustiapen jardueren eskudir. fluxu positiboak	-	-	-	32.005	32.005	-
GASTUAK GUZTIRA	2.490.996	16.184	2.507.180	2.538.082	30.902	101,2
Negozio zifratik zenbateko garbia	2.461.282	14.000	2.475.282	2.473.229	(2.053)	99,9
Bestelako ustiapen sarrerak.....	27.939	-	27.939	29.532	1.593	105,7
Transferentziak eta ustiap. diru-laguntzak	1.775	2.184	3.959	4.191	232	105,9
Finantza sarrerak.....	-	-	-	7	7	-
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi..	-	-	-	31.123	31.123	-
SARRERAK GUZTIRA	2.490.996	16.184	2.507.180	2.538.082	30.902	101,2

(*) Honekin baterako kapital aurrekontuaren aurkezpenak Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 7/2014 Zirkularraren II. Eranskinean ezarritako eredia baliatu du. Gauzatutako kopurua Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren G67 aplikaziotik eskuratzen da, onartutako urteko Kontuez bestelako kontuen multzokatzeak egiten dituen.

ETORKIZUNEN KONPROMISOEN EGIKARITZA 2014-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

	GUZTIRA	2015	2016	2017	GAINER.
EGUNGO AURREKONTUA	132.689	47.577	55.926	29.186	-
Hitzartutakoa.....	36.827	23.239	12.345	899	344
Ordaintzeko.....	95.862	24.338	43.581	28.287	(344)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 OSATEK, SA

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
	2014	2013	
AKTIBOA			
AKTIBO EZ ARRUNTA	6.665	5.156	
Ibilgetu ukiezina.....	-	22	
Aplikazio informatikoak.....	-	22	
Ibilgetu materiala.....	6.665	5.129	
Eraikuntzak.....	821	840	
Instalak. teknikoak, makineria, tresneria, ibilg. eta best. ibilg. materiala ...	5.394	3.682	
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	450	607	
Finantza inbertsioak epe luzera.....	-	5	
Hirugarrenei kredituak.....	-	5	
AKTIBO ARRUNTA	7.301	8.373	
Izakinak.....	57	194	
Lehengaiak eta bestelako hornidurak.....	-	122	
Hornitzaileei aurrerakinak.....	57	72	
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b.	2.649	3.701	
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	12	23	
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	2.631	3.666	
Langileria.....	4	8	
Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk.....	2	4	
Aldizkakatzeak epe laburrera.....	2.012	-	
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....	2.583	4.478	
Diruzaintza.....	2.583	4.478	
AKTIBOA GUZTIRA	13.966	13.529	
EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
	2014	2013	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	10.330	10.030	
ONDARE GARBIA	8.779	9.374	
Berezko funtsak.....	8.779	9.374	
Kapitala.....	3.123	3.123	
Eskrituran jasotako kapitala.....	3.123	3.123	
Erreserbak.....	6.251	6.183	
Legezko eta estatutarioak.....	672	672	
Beste erretserba batzuk.....	5.579	5.511	
Ekitaldiaren emaitza.....	(595)	68	
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	1.551	656	
PASIBO EZ ARRUNTA	603	255	
Geroratutako zerga kontzeptuko pasiboak.....	603	255	
PASIBO ARRUNTA	3.033	3.244	
Epe laburreko zorra.....	40	25	
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	40	25	
Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk.....	2.993	3.219	
Hornitzaileak.....	107	603	
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak.....	682	243	
Askotariko hartzekodunak.....	846	1.070	
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak).....	515	487	
Zerga arruntak erag. pasiboak.....	10	10	
Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin.....	446	421	
Bezeroei aurrerakinak.....	387	385	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	13.966	13.529	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2014	2013
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifratik zenbateko garbia	20.731	21.352
Zerbitzu ematea.....	20.731	21.352
Hornidurak	(724)	(689)
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa	(724)	(689)
Bestelako ustiaketa sarrerak	46	649
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	26	25
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiaketako diru-laguntzak	20	624
Langileria-gastuak	(11.017)	(10.711)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(9.151)	(8.951)
Gizarte zamak	(1.866)	(1.760)
Bestelako ustiaketa gastuak	(8.368)	(9.051)
Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa arrunteko best. gtu.	(8.352)	(9.035)
Tributuak.....	(15)	(16)
Merkat. eragiket.gatik galerak, narriad. eta hornig. bariaz.	(1)	-
Ibilgetuaren amortizazioa	(1.432)	(1.559)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste	117	210
Ibilgetua besterenganatzeagatiko narriadura eta emaitza	-	(148)
Besterenganatzeagatiko emaitzak eta bste.....	-	(148)
Beste emaitza batzuk	45	9
USTIAPENAREN EMAITZA	(602)	62
Sarrera finantzarioak	7	6
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena.....	7	6
EMAITZA FINANTZARIOA	7	6
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(595)	68
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	(595)	68
EKITALDIAREN EMAITZA	(595)	68



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAZ ALDAKETEN EGOERA ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
	2014	2013
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	(595)	68
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	1.360	-
Zerga ondorioa	(381)	-
ONDARE GARBIAZ ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	979	-
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(117)	(210)
Zerga ondorioa	33	59
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(84)	(151)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	300	(83)

ONDARE GARBIAZ ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan					
	ESKRITURAN		AURREKO		JASOT. DIRU-LAG.,	
	JASOTAKO		EKITALD.	EKITALDIAREN	DOHAINT.	
	KAPITALA	ERRETSERB.	EMAITZAK	EMAITZA	ETA LEGATUAK	GUZTIRA
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	3.123	7.960	-	(1.777)	807	10.113
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	68	(151)	(83)
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	(1.777)	-	1.777	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	3.123	6.183	-	68	656	10.030
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	(595)	895	300
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	68	-	(68)	-	-
2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA	3.123	6.251	-	(595)	1.551	10.330



ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2014	2013
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(308)	(602)
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(595)	68
Emaitzaren doiketak	1.308	1.491
Ibilgetuaren amortizazioa.....	1.432	1.559
Diru-laguntzen egozketa.....	(117)	(210)
Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak	-	148
Sarrera finantzarioak.....	(7)	(6)
Kapital arruntean aldaketak	(1.031)	(2.185)
Izakinak	137	(7)
Zordunak eta kobratz. bst kontu batzuk	1.049	370
Beste aktibo arrunt batzuk.....	(2.012)	1
Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batzuk.....	(227)	(588)
e) Beste pasibo arrunt batzuk.....	18	(1.965)
Beste aktibo eta pasibo ez arruntak	4	4
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	10	24
Interesen kobrantzak	7	6
Kobrantzak (Ordainketak) mozkinen gaineko zerga kontzeptuan	3	18
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(2.944)	(1.116)
Inbertsioengatik ordainketak.....	(2.944)	(1.116)
Ibilgetu materiala.....	(2.944)	(1.116)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	1.357	8
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	1.360	-
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	1.360	-
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	(3)	8
Beste zor batzuen jaulkipena	(3)	8
TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA	-	-
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(1.895)	(1.710)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	4.478	6.188
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	2.583	4.478



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2014-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

INBERTSIOAK	AURREKONTUA			GAUZAT.	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.			
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU NEGAT.	-	-	-	308	308	-
INB. UKIEZIN, MATERIAL, ONIB. ETA BESTEEN IGOERA	2.429	560	2.989	2.944	(45)	% 98
FINANTZA PASIBOKO BALIAB. MURRIZKETA	-	-	-	3	3	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	2.429	560	2.989	3.255	266	% 109
FINANTZAKETA	AURREKONTUA			GAUZAT.	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.			
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU POSITIBOAK	-	1.629	-	(1.629)	-	-
TRANSF., DIRU-LAG., DOHAIN. ETA JASOT. LEGAT.	800	560	1.360	1.360	-	% 100
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN MURRIZKETA GARBIA	-	-	-	1.895	1.895	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	2.429	560	2.989	3.255	266	% 109

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2014-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA			GAUZAT.	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.			
LANGILERIA GASTUAK	10.405	633	11.038	11.017	(21)	% 100
Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	8.651	633	9.284	9.151	(133)	% 99
Gizarte zamak eta beste.....	1.754	-	1.754	1.866	112	% 106
FUNTZIONAMENDU GASTUAK	9.020	(633)	8.387	9.092	705	% 108
Hornidurak.....	646	-	646	724	78	% 112
Kanpoko zerbitzuak.....	8.364	(633)	7.731	8.352	621	% 108
Tributuak.....	10	-	10	15	5	% 150
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	-	-	-	1	1	-
FINANTZA GASTUAK	3	-	3	-	(3)	-
KOBR. KTU. IGOERA ETA ORDAIN. KNT. JAITS. GARBI	-	-	-	1.028	1.028	-
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU POSITIBOAK	1.629	-	1.629	-	(1.629)	-
GASTUAK GUZTIRA	21.057	-	21.057	21.137	80	% 100

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA			GAUZAT.	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAT.	EGUNG.			
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	21.051	-	21.051	20.731	(320)	% 98
BESTELAKO USTIAKETA SARRERAK	1	-	1	71	70	-
TRANSFERENTZIAK ETA USTIAP. DIRU-LAGUNTZAK	-	-	-	20	20	-
SARRERA FINANTZARIOAK	5	-	5	7	2	% 140
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU NEGAT.	-	-	-	308	308	-
SARRERAK GUZTIRA	21.057	-	21.057	21.137	80	% 100

ETORKIZUNNEKO KONPROMISOEN EGIKARITZA 2014-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	GUZTIRA	2015	2016	2017	GAINER.
Egikaritzeko konprom. zenbat.	3.972	3.972	-	-	-



ALEGAZIOAK, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2014KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINDAKOAK

I.- SARRERA

Osakidetza–Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren 2014. urteko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, erreferentziazko gaiaren inguruan erakunde horrek egin nahi izan dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira txosten honetan.

II. IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1.- Osakidetzako zerbitzu-erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzten produktuen erosketetan edo ondasun higigarrien horniduretan kontratuaren xedea zatikatu da; horrek publikotasun- edo/eta lehia-printzipioak urratzen ditu (SPKLTB delakoaren 86. art.). Sendagaien hornidurari dagokionez, aztertu ditugun 30,1 milioi euroren erosketetatik 15 milioi eurotan azaleratu da gorabehera hori, hau da, erosketen % 49,7an. Gainerako hornigaietan 91,3 milioi euroan gauzatutako erosketak aztertu dira eta egiaztatu da 82,8 milioi eurotan, hau da, % 90,8an zatikatu dela produktu homogeneoen erosketak (ikus A.4).

ALEGAZIOAK

SENDAGAIK

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenaren I. eranskinak adierazten duenez, 2014an sisteman betetako erosketak-dokumentuen artean (zuzeneko eskaerak) sendagaiak erosteko 24.000 euro baino gehiagoko erosketak-dokumentuen guztizko zenbatekoa 14.969 mila euro izan da.

ALDEZ AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

1. 2014ko txostenean adierazitako zenbatekoak 2013ko txostenean adierazitakoak baino txikiagoak dira nabarmen (15M euroko eta 38,2M euroko hutsak, hurrenez hurren).
2. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eskaera zuzenekotzat jotzen dituen 30.148 mila euro aztertu ditu. Txostenak zenbateko horretan sartu dituen 5.989 mila eurok badute lege-babesa, indarrean zegoen kontratu baten arabera erosi zirenez eta, ondorioz, eskabide horiek Osakidetzaren eta laborategi esleipendunaren artean indarrean zegoen kontratu baten lege-babesean egindako eskabideak dira. Kontratuz kanpoko gisa oker egotzitakoak dira, kontratua bazegoelako. Horiek ez ziren kontuan hartu behar, eta ez lirateke kontratu txiki gisa izapidetutakotzat jo behar. 30.148 euroko kopuru osoaren % 20ri dagozkio.



2015eko ekainaren 3tik Osakidetzak neurri zuzentzaileak jarri ditu martxan Aldabide-SAP ekonomia- eta finantza-sisteman, oker egindako egozpen administratibo horiek prebenitzeko eta konpontzeko.

Diferentzia hori kontuan izanda, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 24.159 mila eurotik abiatuta egin beharko luke azterketa (30.148-5.989); hau da, 24.000 eurotik gorako (Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zifra horretatik aurrerakoak jotzen baititu gorabeheratzat) erosketa-maila izan duten espezialitate farmazeutikoen azterketa zenbateko askoz txikiago batetik abiatuta egin beharko litzateke. Azken finean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ez-betetzea 14.969 mila eurokoa izan dela ondorioztatzeko oinarri hartu duen abiapuntuko zifra askoz handiagoa da benetakoa baino (nahiz eta ezin daitekeen erabat zehaztu, esan liteke, proportzioan, 24.159 eurotik abiatuz gero, 11.995 euroko zifra aterako litzatekeela). I. Eranskinean zerrendatzen dira aipatutako 5.989 mila euro horiei dagozkien eskabideak.

3. 14.969 mila euroko kopuru osotik, % 74 komertzializazio eskusiboko sendagaiei edo/eta sendagai biologiko eta ez kimikoei dagokie.

Eskusibotasunak esan nahi du sendagai batek hornitzaile bakarra duela eta, beraz, sendagaiak patologia jakin bat tratatzen duen hornitzaile bakar horri eskatu zaizkiola. Halakoetan, ezinezkoa da lehia-printzipioa urratzea. Nabarmendu behar dugu halako kasuetan hornitzaile bakarra dagoela, eta sendagaiaren prezioa Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ezartzen duela. Gogoan izan behar dugu Espainian sendagaien prezioak ez direla askeak eta aipatutako Ministerioak ezartzen dituela. Hain zuzen, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (aurrerantzean, AEMPS) sendagaiei buruzko online informazio-zentro bat (CIMA) du bere webgunean. Bertan, sendagai bakoitza komertzializatzen dituzten titularrak nor diren zehazten da eta, beraz, azalpen hauetarako hain funtsezkoa den datu hori egiazta daiteke

<http://www.aemps.gob.es/cima/fichasTécnicas.do?metodo=detalleForm>).

Bestalde, sendagaiak biologikoak eta ez kimikoak izateak konplexutasun handiagoa dakar bai sendagaiok erabiltzean bai haien jarraipena egitean, eta horrek espedientearen izapidetzea baldintzatzen du. AEMPSEk berak ere sendagai horiek ordezkazekinak direla ezartzen du eta, 2009-04-24ko oharrean (II. Eranskinean dago erantsita) adierazten du ezen, pazienteen osasuna babeste aldera, sendagai biologikoak ezingo direla ordeztu sendagaia emateko momentuan, nola eta sendagaia agindu duen medikuak ez duen berariaz horretarako baimena ematen. Gainera, konplexutasun tekniko hori dela-eta, sendagai biologikoak komertzializatzeko baimena EMAk, Europako osasun-agentziak, bakarrik eman dezake, eta ez agentzia nazionalak.

III. Eranskinean, sailkapen horren araberrako sendagaien zerrenda azaltzen da eta, adibide gisa, hornitzaile bakarra duen sendagai baten egiaztagiri bat ere azaltzen da, CIMAtik aterata (sugammadex printzipio aktiboa duen sendagai bakarria Bridion da).

4. Txostenean aipatzen diren farmako ia guztiak ospitalean erabiltzekoak dira; hau da, konplexutasun tekniko handiko sendagaiak dira eta patologia larrietarako, patologia ezgaitzaileetarako, diagnostikatzen oso zailak diren patologietarako, asistentzia-eskaria aurrez zehaztea ezinezkoa den patologietarako dira aproposak eta pazienteentzako eta gero kontsumitzeko aproposak. Orobat, oso garestiak dira.

Zerbitzu-erakundeek egiten duten erosketen kudeaketaren helburua asistentzia-premiak berehala asetzea da. Sendagaiak funtsezko hornigaiak dira asistentzia-zerbitzuek behar bezala funtziona dezaten; ezin zaio zerbitzua emateari utzi kontratazio-espeditentea prestatu eta lizitazioa egin bitartean; izan ere, konplexutasun tekniko handiko prozedurak dira eta espezifikotasun zehatzak dituzten merkatu farmazeutikoko kanpo-elementuen eraginpean daude. Konplexutasun horri erantsi behar diogu sendagaiak, oro har, hainbat modu farmazeutiko edo galenikotan eman ohi direla (konprimituak, kapsulak, disoluzioan, injektagarriak, etab.); sendagaien dosifikazioa, eszipientea, iraungitze-data eta egonkortasuna ez dela guztietan berbera eta erabiltzeko baldintza eta modu desberdinak daudela. Bestalde, hornitzaileek hainbat baldintza logistiko eskaintzen dituzte eta hori ere aztertu behar izaten da.

Teknikariek egiten duten alde zurretiko azterketa hori guztia konplexua da eta lan handia eskatzen du eta luze jotzen du izapidetzeko. Denbora hori kontratazio-espeditentearen barruan kontatzen da, baina ez du eraginik kontratu txikiko erosketak murrizteko.

Ondorioz, kalitatezko osasun-laguntza bermatu ahal izateko, beharrezkoa da espeditenteak hasi aurretik egingo diren ekintzak zehaztea, kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko egokienak zehazteko helburuaz.

ALEGAZIOAK

1. Sendagaiak erosteko eginiko 24.000 eurotik gorako erosketen guztizko 14.969 mila euroetatik, gutxienez 2.695 mila euro (% 18) eskabidea egiten den egunean indarrean dagoen kontratu baten babesean dagoen kodea duten sendagaiei dagozkie. Ondorengo agiriak frogagiri gisa erabil daitezke IV. Eranskina (Aldabide-SAP esparru-kontratuaren zenbakia eta kontratuaren hasiera- eta amaiera-data dituzten sendagaien zerrenda) eta V. Eranskina (eskabidea egin zen egunean kontratuak indarrean zeudela bermatzen duten espeditenteen eta kontratuen zerrenda).
2. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren arabera, sendagaiak erosteko eginiko 24.000 eurotik gorako erosketen guztizko 14.969 mila euroetatik, 79 mila euro Tractocile sendagaiari (atosiban printzipio aktiboa) dagozkio. Sendagai horren kontratazio-prozedura geldiarazi egin behar izan zen eskaintako sendagaiak segurtasun-arazo bat zuelako. Segurtasun-arazoa konpondu eta gero, abiarazitako espeditente berria alde zurretik bertan behera utzi behar izan zen, laborategi esleipendunak hornidurarik ez zuelako. Ondorengo agiriak frogagiri gisa erabil daitezke VI. Eranskina (AEMPSen oharra eta kontratuaren indargabetzea, atosibanen hornidurarik ezagatik)

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA (Aldabide-SAP ekonomia- eta finantza-sistema informatikoan eskaerak jasoagatik, indarrean dauden kontratuak dituzten sendagaien espedienteak)
- II. ERANSKINA (Aempsen Informazio-Oharra; bertan adierazten denez, pazienteen osasuna babeste aldera, sendagai biologikoak ezingo dira ordeztu sendagaia emateko momentuan, nola eta sendagaia agindu duen medikuak ez duen berariaz horretarako baimena ematen)
- III. ERANSKINA (Sendagai eskusiboak edo/eta sendagai biologiko eta ez kimikoak)
- IV. ERANSKINA (Sendagaien zerrenda, Aldabide-SAPen esparru-kontratuaren zenbakia eta kontratuaren hasiera- eta amaiera-data)
- V. ERANSKINA (Eskabidea egin zen egunean kontratuak indarrean zeudela bermatzen duten espedienteen eta kontratuen zerrenda)
- VI. ERANSKINA (AEMPSen oharra eta kontratuaren indargabetzea, atosibanen hornidurarik ezagatik)

GAINERAKO HORNIGAIAK

Bestalde, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenek gure informazio-sistema ekonomikoan kontratu batekin lotu gabe dauden eskabideak jasotzen dituzte. Hala ere, hainbat arrazoi direla medio, zenbaitetan, gerta liteke eskabidea kontratu batekin lotu gabe azaltzea baina indarrean dagoen kontratu bat izatea eta materialak esleipendunari kontratuean erosi izana kontratuak ezarritako baldintzak betez. 2015eko ekitaldian, Osakidetzako informatika-zerbitzuek kasuistika hori hautemateko gai den garapena bat inplementatu zuten.

Kontratua izan baina kontratuari lotuta geratu ez ziren materialei dagozkien zuzeneko eskaeren zenbatekoa 7.577.091 euro izan zen Kontrol Ekonomikoko Bulegoak aztertutako artikuluko-multzorako. Txosten horretatik Donostialdeko ESik alegatu eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak onartutako 1.541.847 euro kendu beharko lirатеke. Kopuru hori koadroan azaltzen den zenbatekotik at dago dagoeneko. Beraz, guztira 6.035.244 euro kendu beharko lirатеke.

Hori horrela, ez-betetzearen zenbatekoa 67,17 (% 73,60) izango litzateke, hau da, gastuaren % 25,47.

Azkenik, esan behar dugu ohikoa dela kontratuek indarrean dirauten bitartean produktuekin zerikusia duten gorabeherak gertatzea. Izan ere, esleitutako kontraturik egonagatik ere, batzuetan osasunaren kudeaketaren berehalakotasunak ezinbestean zuzenean erostea eskatzen du. Gorabeherak bi motatakoak izan daitezke:

- Logistikoak, hala nola hornitzaile esleipendunari stocka hondatzea, entregak egitean atzerapenak gertatzea, garraio-grebak, etab.
- Teknikoak, produktuen kalitatearekin lotutakoak, hala nola pazienteek erreakzio alergikoak izatea, erredurak, dermatitisa, erorketak, etab.



Gorabehera horien ondorioz, gertatzen diren unetik konponbidea aurkitu arte, erakundeek beste enpresa batzuetara jo behar izaten dute eskaerak egitera, Zuzeneko erosketaren bidez. Desoreka ekonomikoa gertatzen bada, enpresa esleipendunak hartu behar du bere gain. Baina edonola ere, eskaerak 24.000 eurotik gorakoak badira, kontu-hartzaitzaren txostenean jasota geratuko dira.

Kontratuen indarraldian, bestalde, honako hauek ere gertatzen dira: enpresek bat egiten dute, kontratuak lagatzen dituzte, izaera juridikoa aldatzen dute, etab. Horrek berekin dakar SAP – EGINBIDE sistemetan aldaketak egin behar izatea, eta, horregatik egiten dira eskaera batzuk kontratutik kanpo.

Bestalde, gordailuko produktuen kasuan (inplanteak nagusiki), kontratu berri bat esleitzen denean, denbora tarte batez zuzeneko eskaerak egiten zaizkio aurreko hornitzaileari (espedientea indarrean ez egonagatik); izan ere, gordailuak ez dira oraindik produktu/esleipendun berriekin eguneratuta egoten, kontsignako materialak ez baitira bizkor berritzen.

Nabarmendu nahi dugu, orobat, osasunaren antolaketa-egiturak integratzeak zer nolako eragina izan duen aldi batez erosketa txikien gorakadan. Osakidetzan 2011ko urrian hasitako antolaketa-egitura aldaketek (lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren integrazioa) aurrera jarraitu zuten 2014an oraindik ere. Hala, 2014ko urtarrilaren 1ean, Bizkaiko osasun-barrutian hiru erakunde berri sortu ziren (Bilbo-Basurtu ESI, Barrualde ESI eta Barakaldo-Sestao ESI) eta bost desagertu ziren.

Halako prozesuek inpaktu handia izaten dute erosketa- eta bilketa-esparruetan. Tartean dauden erakundeen produktuen katalogoak bateratu egin behar dira eta, hortaz, bateratze-prozesu horretan, katalogoak bateratu artean, ez dira espediente berriak abiarazten, aurrekoen epea amaituta egonagatik ere. Izan ere, gerta liteke zentro batean esleitutako produktuak hornitzaile bati baino gehiagori esleitzea eta halakorik gertatuko balitz, katalogoa ezingo litzateke bateratu.

Bestalde, integratuko diren bi erakundeen erosketa-kopuruak batzearen eragina dago, talde homogeneo bakoitzerako ezarritako 24.000 euroko muga ez baita bikoizten. Ondorioz, lehenago espedientearen izapidetzerik behar ez zuten produktu-multzokatzeek orain behar dute.

2014ko erosketa integratuaren laburpena

Atal honetan Osakidetzak 2014ko ekitaldian erosketa integratuaren alde egindako ahalegin handia nabarmendu nahi dugu. Erosketa-kopuru handiagoei esker, prezio hobea lor daiteke baina, batez ere, erosketa integratuaren bidez, produktuen katalogoak homogeneousatzea eta hartara, kontratazioa hobetzea lortzen da.

Jarraian, Erosketa Integratuan lehendabizikoz abiarazi diren espedienteak eta aurretik espedientea izan baina esleitutako produktuetan aldaketa handiak izan dituztenak zerrendatzen dira:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Espedientearen xedea	Esleitutako urteko zenbatekoa
Aposituak eta giro hezeetan sendaketa egiteko produktuak	3.540.017,00 €
Aldakako protesia	5.820.059,00 €
Endoprotesi aortikoak	2.580.350,00 €
Stent baskularrak eta baloi-katerrak	1.185.700,00 €
Koilak eta neuroerradiologiako materiala	925.500,00 €
Binilo sintetikoazko eskularruak eta erradiologiako babesgarriak	651.360,00 €
Ahotiko antikoagulatzaileen bidezko tratamendua ezarri ala ez erabakitzeko materiala	1.739.650,00 €
Gipuzkoako laborategietarako Core erreaktiboak	4.248.558,00 €
Galdakao-Gernikako laborategietarako Core erreaktiboak	1.336.126,00 €
Anatomia patologikorako erreaktiboak (zitologia likidoa)	747.650,00 €
Gasometria	368.042,00 €
Jalkiera-abiadurak	92.369,00 €
Hemokultiboak – AUO Debagoiena	89.280,00 €
Guztira	23.324.661,00 €

Ekitaldia hasi zenetik horietako batzuk ez dira oraindik martxan jarri eta, beraz, ez dira 2015era arte espedientepeko erosketa-ratioetan islatuko, zenbaiten kasuan ez baitzegoen erakundeen beraien espedienterik. Zenbaitetan, martxan jartzearen ondorioz, ratioak okerrera egin du 2014an; hala, erakunde batek espedientea izateak espedientea ez berritzea ekarri du, espediente zentralizatua berehala abiaraziko zela-eta, eta, bitartean, esleipenean izandako edozein atzerapenek erosketa txikiak egin beharra ekarri du.

Hainbat adibide erakusgarri aipatuko ditugu:

- Aposituen eta giro hezeetan sendaketa egiteko produktuen espedientea. Produktuaren 223 kode berri esleitu ziren gutxi gorabehera. Horrek esan nahi zuen zentro guztietako eskaerak eguneratu behar zirela eta ezinezkoa da hori egun batetik bestera egitea. Bitartean, eskaerak esparru-kontratutik kanpo egiten ziren, lehentasuna produktua eskuragarri egotea baitzen.
- Aldakako protesia. Espedientea 2014ko abenduan hasi zen, urte osoa lanean eman ostean. Gutxi gorabehera 4.000 kode esleitu ziren. Indarrean zegoen kontraturik ez zuten zentroek zuzeneko eskaerak egin behar izan zituzten kontratua esleitu zieten arte. Esleipena 2015eko uztailaren 1erako zegoen aurreikusita, baina 2015eko urriaren 1era arte atzeratu zen lizitatzaille batek errekurtsua jarri zuelako.
- Ahotiko antikoagulatzaileen bidezko tratamendua ezarri ala ez erabakitzeko materiala. Espedientea 2006an jo zuten erosketa integratutzat. 2008ko kontratua 2014ko otsailean amaitu zen. Lizitazio berria 2014ko abuztuan hasi zen. Espediente konplexua da eta bertako batzordean lehen mailako arretako hematologoak eta erizaintzako langileak daude. Plegua prestatzea konplexua izan zen eta baita izapidetzea ere eta, hain zuzen, errekurtsua jarri zioten. Hala, kontratua ez zen 2015eko ekainera arte esleitu. 2014ko otsailetik aurrera, AATA ezarri ala ez erabakitzeko zerrenden eskaerak espedienterik gabe egin ziren.
- Zitologia likidoa. Teknika berria da zentroetan. Espedientea 2014ko apirilean hasi zen eta kontratua 2015eko irailaren 1ean formalizatu zen, lizitatzaille batek errekurtsua jarri zuelako.

- Gasometriak. Prozedura berria. Espedientea 2014ko martxoan hasi zen baina FENINEk errekurtsua jarri zuen eta, ondorioz, kontratua ez zen 2015eko otsailaren 8ra arte formalizatu. Bitartean, zentroek zuzeneko eskaerak egin behar izan zituzten.
- *Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Areilza doktorea izeneko kirurgia-blokeko suspertze-atala eraberritzeko obra-espeditentea 4,9 milioi euroan esleitu zen. Hala ere, hasiera batean esleitutako zenbateko horretan aldaketak egiteko baimena eman da, aurreikusitako instalazioak indarrean dagoen araudi berrira egokitu daitezzen. Espedienteak 1,2 milioi euro gehiago jaso ditu, hau da, % 40ko gehikuntza. Beraz, hasierako kontratuaren funtsezko baldintzak nabarmen aldatu dira, SPKLTB delakoaren 107.2 eta 3. artikuluek ezartzen dutenaren arabera (ikus A.4. 3. espeditentea).*

ALEGAZIOA

Hona hemen zenbatekoak:

	PROIEKTUA	1. ALDAKETA	2. ALDAKETA	3. ALDAKETA
EGIKARITZE MATERIALAREN AURREKONTUA, GUZTIRA	3.886.211,70	4.594.518,37	5.089.017,59	5.476.841,06
ESLEIPENAREN BEHERAPENA % 33,37976913				
EM AURREKONTUA, GUZTIRA, BEHERAPENAREKIN	2.420.267,60	2.861.389,13	3.169.354,98	3.410.884,94
SEGURTASUNA ETA OSASUNA	31.939,50	31.939,50	31.939,50	31.939,50
G.O eta I.M. OINARRIZKO GASTUAK	2.452.207,10	2.893.328,63	3.201.294,48	3.442.824,44
% 13 GASTU OROKORRAK	318.786,92	376.132,72	416.168,28	447.567,18
% 6 INDUSTRIA-MOZKINAK	147.132,43	173.599,72	192.077,67	206.569,47
ESLEIPENAREN AURREKONTUA GUZTIRA	2.918.126,44	3.443.061,07	3.809.540,43	4.096.961,09

Espediente honetan 3 aldaketa izapidetu behar izan ziren, batez ere proiektua araudi eta ospitalearen premia berrietara egokitzeko.

Ospitalearen premiei dagokionez, kontzeptu garrantzitsuena izan zen proiektuan aztertutako eta baloratutako oheburukoek ez zietela erantzuten suspertze-boxen eta bertan gauzatuko ziren osasun-zerbitzuen premia berriei. Horrenbestez, oheburukoak aldatzeaz gain, horietarako beharrezkoak ziren eta horietan eragina zuten instalazio guztiak ere aldatu behar izan zituzten, hala nola instalazio elektrikoak, informatikakoak, ahots eta datuak eta gasak. Izan ere, horiek guztiak ezinbestekoak dira boxetako oheburukoek behar bezala funtziona dezaten.

Araudiari dagokionez, honako hau adierazi behar dugu nagusiki:

- Suteen aurkako araudia. Araudiak eragina izan zuen suaren kontrako babesgarri berrietan, instalazioko kableen ezaugarrietan eta ateen zabalera handiagoan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Elektrizitateari buruzko araudia. Koadro elektrikoak eta panel teknikoak egokitu behar izan ziren.
- Ahots eta datuen sareari buruzko araudira egokitzeko eguneraketa.
- Klimatizazioari buruzko araudira egokitzea. Proiektuaren arabera, 10 (hamar) urtetik gorako klimatizagailu batzuk erabiltzen jarraitu nahi zuten, baina aparatu horiek ez zuten EITE erregelamendua betetzen fluxuari, emariari eta berriztatzeari dagokionez. Aparatuek ez zuten lortzen tenperatura $24^{\circ} \pm 2$ gradura jaistea, udaldian bereziki, eta ondorioz, klimatizazio guztia aldatu behar da.
- Eta azkenik, argiztapena energia aurrezteko kontzeptu berrietara egokitu behar da eta beraz, beharrezkoa izan da «led» motako argiak jartzea.

Aldaketa hauen guztien ondorioz, lanak areagotu eta epeak luzatu egin dira. Azkenean, lanak araudiaren kontzeptuak betez eta ospitaleko premiei erantzunez bukatu dira.

Esan behar dugu, azkenik, etorritako araudi eta premietara egokitzeko, aldaketak egin zirela kontratuan, betiere herritarren interesaren alde eta zerbitzua eman ahal izateko breharezkoa den azpiegitura ahalik eta bizkorren prest izateko.

III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK.

III.1 OSAKIDETZA

III.1.2 LANGILERIA-GASTUAK

- *Dokumentuetan ez da jasota geratu 81 izendapenetan erabilitako prozedura.*



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Gai horri dagokionez, aurreko urteetako fiskalizazio-txostenei egindako alegazioak berresten ditugu. Laburpen modura, honako alderdi hauek dituzte ardatz:

- . Osakidetzan, lan-eskaintza publikoen eta dagozkien deialdi publikoen bidez hornitzen dira behin betiko lanpostuak, eta zehatz-mehatz betetzen dira publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak.
- . Behin-behineko lanpostuak betetzeko, aldiz, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak mugikortasunari, zerbitzu-eginkizunei, barne-igoerei eta behin-behineko kontratazioari buruz onartutako erabakien arabera jokutzen da.
- . Edonola ere, hautaketa-prozesuetan lanpostu bakoitzarentzako beharrezkoak ziren titulazio-eskakizunak bete dira.
- . Osakidetzan martxan ipini diren langileria arloko prozedurek baliabide elektronikoak gero eta gehiago erabiltzea ekarri dute. Izatez, erreferentzia moduan esan dezakegu apirilean kontratazio-eskaintza masibo bat egitea aurreikusten dela, esleipen telematikoaren bidez egun titularrik ez duten lanpostuak behin-behinean eta bitarteko izaerarekin betetzeko.

- *Zerbitzu-eginkizunetako 26 espedientetan bi urteko gehieneko epea gainditu da, bai eta urtebeteko epe-muga ere maila altuagoko egitekoetarako 30 espedientetan.*

ALEGAZIOA

Puntu honetan gogora ekarri behar dugu zein den aldi baterako eta bitarteko izendapenen iraupenaren arazoia, bai eta zerbitzu-eginkizunena, aldi-baterako barne-igoerena eta abarrena ere: zerbitzu-erakundeetan sortzen diren beharrei erantzutea, eskariari egokitzen zaion kalitateko osasun-arreta bat emateko. Horrenbestez, zerbitzu horiek ematen jarraitzeko beharrezko iraunaldia izaten dute, horretarako ezartzen diren lanpostuak araudiaren arabera betetzen diren arte, guztia indarreko legedia betez.

Edonola ere, eta ZERBITZU-EGINKIZUNEN IRAUPENARI buruzko oharrari erantzunez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari aurreko txosten batean esandakoa berretsi nahi dugu: osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak (Osakidetzako estatutupeko langileei zuzenean aplikatu behar zaien araudiak, alegia) zerbitzu-eginkizunak arautzen ditu 39. artikuluan, inolako epe-mugarik ezarri gabe.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea araudi osagarria izango litzateke berariazko araudiak xedatzen ez dituen puntuetan, eta kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen. Bestalde, azpimarratu nahi dugu Euskal Funtzio Publikoaren Legeko arau batzuk zuzenean aplikatu beharrekoak direla pentsatzekotan, II., IV., V. eta VI. tituluetan jasotakoak lirakeela. Horietan ez dago zerbitzu-eginkizunari buruzko araurik, eta hori 54. artikuluan xedatzen da (III. titulua, IV. atalburua, hirugarren atala).

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioek Osakidetzan zerbitzuak emateko zerbitzu-eginkizunak egiten direnean, administrazio



publikoen arteko lankidetzaren esparruan egin dira. Horretarako, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko urriaren 13ko 190/2004 dekretuak 51.1 eta 51.3 artikuluetan espresuki xedatzen duena bete da, eta kasu horiek bi urteko epe-muga luzagarriarekin baimendu dira.

Laburbilduz, araudiak epe-mugak ezartzen dituenean, muga horiek zorrotz bete dira.

- *Nominan adierazten den lanpostu funtzionala eta izendapena ez datoz bat edo ez dira baliokideak 9 kasutan.*

ALEGAZIOA

Puntu horretan, zegokion erakundeek bere garaian kontu-hartzaitzaren txostenari egin zizkioten alegazioekin bat egiten dugu.

- *Badira aldi baterako osagarriei buruzko berariazko araudiak (guardia medikoak, maila altuagoko egitekoak, txandakotasuna, gauekotasuna, jai-egunak, kokalekua, autokontzertazioa, etab). Hala eta guztiz ere, ez dira beti betetzen, gehienbat benetan eman diren zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazioa falta delako eta organo eskudunek onartzen ez dituztelako.*

ALEGAZIOA

Zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazio faltagatik eta organo eskudunek onartu ez dituztelako betetzen ez diren ordainketa-kontzeptuei dagokienez esan behar dugu jarduera hori jasotzen duen tresna Giza Baliabideen Kudeaketarako Sisteman integratuta dagoen karteldegia edo txanda-planifikatzailea dela, eta horrekin kudeatzen direla denborak.

Karteldegi horretan, alde batetik, jardueraren datu teorikoa jasotzen da, hau da, programatuta dagoena, eta, bestetik, karteldegi erreal deitzen den zatian, benetan gauzatutako jarduera eta gainerako gertakariak (absentziak eta bertaratzeak) jasotzen dira, nominan eragiten dutenak. Pentsatzekoa denez, zentro bakoitzak kudeatzen ditu karteldegietako aldaketak, jarduteko prozeduren eta barne-protokoloen barruan. Horrela, benetan egindako jarduera beti ordaintzen da nominan.

Baimenak emateko, eta ondoren jarduera nominan sartzeko (ordaindua izan dadin) bide formal jakin batzuk zehazteko beharra badagoela pentsa bagenezake ere, ezin dugu ahaztu gaia eta horren kudeaketa zailak direla. Edonola ere, karteldegiak jarduera erreala jasotzen du, eta, beraz, irtenbide formal posibleek ez dute laguntza-zerbitzuaren kalitatea urritu behar, ez eta aipatutako kudeaketa-tresna horrek denborak kudeatzeko duen sistema ere.

Esandako guztiaz gain, uste dugu garrantzitsua dela esatea Giza Baliabideen Zuzendaritza kontrol-elementuak dituzten hainbat prozesu egiten ari dela. Hala, 2008tik ordainsariak kudeatzeko prozesu korporatiboak –nominak eta gizarte-segurantza– ziurtapena du ISO 9001:2008 arauaren arabera. Ziurtapen horrek 3 urteko ziklo bat hartzen du. Hiru urte horietan, beharrezkoa da urtero barneko eta kanpoko auditoretzak egitea, arauaren arabera.



Prozesu horretan definitutako adierazleak Osakidetza mailakoak eta zerbitzu-erakundeen mailakoak dira. Adierazle horiek Zuzendaritza Nagusiak, batzordeak eta erakunde bakoitzak aztertzen ditu. Adierazleak zerbitzu erakundeei bidaltzen zaizkie, batzuei hiru hilean behin eta beste batzuei sei hilean behin, azter eta justifika ditzaten eta egoki jotzen dituzten neurriak har ditzaten.

Zerbitzu-erakunde bakoitzean aurkitzen diren gorabeherak Zuzendaritza Nagusian, batzordean eta zerbitzu-erakundeetan ere aztertzen dira, zuzentzeko eta aurrerantzean halakoak saihesteko hobekuntzak ezartzeko.

Azkenaldian, honako adierazle hauek hobetzeko lanean ibili gara:

1. Txanda-osagarria kobratzen dutenen zerrenda.

Txosten bat definitu da nominako datuak (txanda-osagarria kobratzen dutenenak nahiz ez dutenenak) kontrastatzeko karteldegiko lanaldien eta laneko txanden informazio mekanizatuarekin.

Ateratzen den langile-zerrenda erakundeetara bidaltzen da egiazta dezaten. Txanda-osagarria kobratzen dutenen baina txanda bakarrean lan egiten dutenen zerrenda da, eta, alderantziz, txanda batean baino gehiagotan lan egin arren osagarria kobratzen ez dutenena ere bai.

2. Ospitalizazioko osagarria kobratzen dutenen zerrenda.

Txosten bat definitu da nominako datuak (ospitalizazioko osagarria kobratzen dutenenak nahiz ez dutenenak) kontrastatzeko adskripzioko dibisioaren edo antolamendu-unitatearen (ospitalea) informazioarekin.

Ateratzen den langile-zerrenda erakundeetara bidaltzen da egiazta dezaten. Ospitalizazioko osagarria kobratzen dutenen baina pertsonaleko dibisio gisa ospitalea ez dutenen, eta, alderantziz, pertsonaleko dibisio gisa ospitalea izan arren ospitalizazioko osagarria kobratzen ez dutenen zerrenda da.

3. Lanaldi zatituko osagarria kobratzen dutenen zerrenda.

Txosten bat definitu da nominako datuak (lanaldi zatituko osagarria kobratzen dutenenak nahiz ez dutenenak) kontrastatzeko karteldegiko lanaldien eta laneko txanden informazio mekanizatuarekin (lanaldi zatituan lan egiten dutenak «JP» kodearekin markatzen dira karteldegian).

Ateratzen den langile-zerrenda erakundeetara bidaltzen da egiazta dezaten. Lanaldi zatituko osagarria kobratzen dutenen baina karteldegian zirkunstantzia hori jaso gabe dutenen zerrenda da, eta, alderantziz, goiz eta arratsaldean lan egin arren osagarri hori kobratzen ez dutenena ere bai.

Beraz, adierazle horien helburua da zerbitzu-erakunde bakoitzak egiaztatzea ordainketak ondo egiten ari direla, eta benetan egindako jardueragatik ordaintzen dela.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Esandakoaz gain, Osakidetzak enpleguaren atariaren norainokoa handitzeko asmoa dauka, eduki eta funtzionaltasun gehiago txertatzeko. Adibidez, lan-txandak eta/edo guardiak aldatzeko eskaerak tramitatzeke aukera eman nahi da. Horrek langile bakoitzari hasiera batean esleitzen zaion karteldegi teorikoa aldatuko luke, plangintzako aldaketen jarraipen eta trazabilitatea egin ahal izateko, betiere dagokion erdi mailako arduradunaren eta Zuzendaritzaren onespenerekin.

- *Gainera, behin-behineko langileen 64 espediente aztertuta, 29 izendapenetan edo luzapenetan ez dira identifikatzen egin beharreko zerbitzuak eta haien izaera eta ez da justifikatzen Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 26.5 artikuluan aurreikusitakoan artean daudela; ondorioz, ez da haien objektibotasuna bermatzen.*

ALEGAZIOA

Osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 9.3 artikulua dio behin-behineko izendapena honako kasu hauetan egingo dela:

- a) Aldi baterako, egoeraren araberako edo ohiz kanpoko zerbitzu jakinak egin behar direnean.
- b) Osasun-zentroen etengabeko funtzionamendu jarraitua bermatzeko beharrezkoa denean.
- c) Ohiko lanaldi bat murriztean zerbitzu osagarriak egin behar direnean.

Estatutupeko behin-behineko langileak lanpostua utzi beharko du horretarako zergatia sortzen denean edo bere izendapenean berariaz zehazten den epea betetzen denean, baita izendapen hori eragin zuten funtzioak bertan behera uzten direnean ere.

Hori betez, atxikita bidaltzen ditugu Osakidetzako behin-behineko izendapenen taulak. Horiek GIZABIDE giza baliabideen kudeaketa integraturako sisteman daude, eta egiten diren izendapenak erabakitzeko erabiltzen dira. Taula horiek 9.3 artikuluko baldintzak betetzen dituzte eta honako hauek dira:

- Estatutupeko izendapena, aldi baterako, egoeraren araberako edo ohiz kanpoko zerbitzu jakinak egiteko, aurreko a) atalari dagokiona.
- Egoeraren arabera osasun-zentroen etengabeko funtzionamendu jarraitua bermatzeko beharrezkoa denean egiten den izendapena, aurreko b) atalari dagokiona.
- Behin-behineko estatutupeko izendapena, lanaldi bat murriztean zerbitzu osagarriak egiteko, aurreko c) atalari dagokiona.
- Behin-behineko estatutupeko izendapena, behin-behineko langileak ordezkatzeko.



Hortaz, uste dugu Osakidetzak egiten dituen behin-behineko izendapenen arrazoia behar bezala adierazten dela, zerbitzuen prestazio zehatza definitu ez arren, zerbitzu horiek kasu bakoitzaren maila eta lanpostu funtzionalari dagozkionak izango direlako.

Sailkapen hori, halaber, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 26.5 artikuluan xedatutakoaren arabera da. Izan ere arau hori orokorragoa da eta ez du kausarik zehazten. Honako hau dio:

« .../...

Halaber, enpleguko erlazio estatutarioak sor daitezke, behin-behinekoak izanik eta denbora partzialerako nahiz osorako araubidean daudela, efektiboak behar direnean, eta egituraren aldetik haiek behin-betiko egotea aurreikusita ez dagoenean, edo denboraldi zehaztuan lanak egiteko direnean, beti ere, behar besteko dotazio ekonomikoa izanez gero. Aipatutako enpleguko erlazio horiek 6 hilabetera artekoak izango dira, eta gehienez 3 urtera arte luzagarriak.

Arau honetan aurreikusten diren lanpostuak betetzeko araubideen arabera hautaketa-antolaketetan berdintasun-, publizitate-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak gordeko dira.»

Azken finean, iraupen zehatzeko izendapenak dira eta egituraren aldetik ez da aurreikusten haiek behin-betiko egotea, artikuluan adierazten den bezala.

Kudeaketa-sisteman behin-behineko estatutupeko langileak izendatzeko taulak atxiki dira VII. Eranskin bezala.

III.1.3 KONTRATAZIOA

2014AN FORMALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK

- *Guztira 20,7 milioi euroan esleitutako hornidurako 3 espedientetan eta zerbitzuetako 3tan, pleguek hutsak ageri dituzte esleipen-irizpideak baloratu eta haztatzeko metodoak zein diren ezartzeari dagokionez (SPKLTB delakoaren 150. artikulua) (25, 27, 28, 51, 54, eta 58. espedienteak).*

ALEGAZIOA

Europako zuzentarauen helburuekin bat eginez, sektore publikoaren kontratuei buruzko legediaren bitartez zera lortu nahi da: eskaintzen balorazio-irizpideak argi eta garbi jasota geratzea eta kontratuaren xedearekin lotuta egotea; lizitatzailer guztiek irizpideak ezagutzea eta irizpideok berdin aplikatzea lizitatzailer guztiei, kontratazio-organoaren hautatzeko eskumena neurritz kanpoko edo mugagabea ez izateko moduan. Hala kontratazio-organoaren nola kontratazio-mahaiaren arabera, ezaugarri teknikoak baloratzeko erabiliko diren esleipen-irizpideak baloratzeko eta haztatzeko metodoak xehatuta eta zerrendatuta



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ematen dira, kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta, eta lagungarriak dira eskaintza onuragarrienaren deklarazioa zuhurtasunez emateko.

- *Guztira 9,3 milioi euroan esleitutako zerbitzuetako 2 espedientetan, pleguek bermea eratzeko betebeharretik salbuesten dute esleipenduna, justifikaziorik eman gabe (SPKLTB delakoaren 95.1 artikulua) (52. eta 53. espedienteak).*

ALEGAZIOA

Administrazio-klausula partikularren pleguko karatulako 7.2 puntuan zerrendatutako espedienteetan berariaz dago jasota zein den salbuespenerako justifikazioa.

- *Guztira 43 milioi euroan esleitutako hornidurako 3 espedientetan eta zerbitzuetako 3tan, proposamenen irekiera epez kanpo egin da (SPKLTB delakoaren 160.1 artikulua) (25, 33, 47, 49, 53 eta 58 espedienteak).*

ALEGAZIOA

Espediente batzuetan, SPKLTB delakoaren 160.1 artikulua ezartzen duen hilabeteko epea amaitutakoan ireki dira proposamen ekonomikoak. 150.2. artikulua xedatutakoari jarraiki, uste dugu beharrezkoa dela, proposamen ekonomikoak ireki aurretik, irizpide neurgarrietan balio-judizio baten bidez lortutako puntuazioak argitaratzea. Espediente batzuetan oso konplexua edo zaila (ezinezkoa) da eskaintza teknikoak 160.1 artikuluan ezarritako epearen barruan ebaluatzea, dela iraupen luzeko probak behar dituzten materialak direlako, dela produktu sorta oso handia delako, dela beste arrazoi batzuegatik. Horrelakoetan, Osakidetza nahiago du proposamen ekonomikoen irekiera epez kanpo egin eta ez, ordea, balio-judizioen irizpideen puntuazioak argitaratu gabe; espediente batzuen kasuan zentzugabea den epe orokor bat betetzearekin alderatuta, garrantzitsuagoa da prezioaren konfidentziaztasuna Legeak markatutako mugaraino gordetzea. Edonola ere, atzerapena dagoenean, lizitatzailerik guztiei behar bezala jakinarazten zaie bai atzerapena, bai deialdi berria.

- *Guztira 45,7 milioi euroan esleitutako hornidurako 5 espedientetan eta zerbitzuetako 5etan, esleipenaren ebazpena epez kanpo egin da (SPKLTB delakoaren 161. artikulua) (21, 32, 36, 37, 40, 45, 56, 59, 60, 65 eta 66 espedienteak).*

ALEGAZIOA

Halaxe da: proposamenak ireki eta 2 hilabete baino gehiago igaro ostean esleitu dira zenbait espediente. Dena den, bi hilabeteko epe arrunta gainditu bada ere (ez iraukitze- edo preskripzio-epea), prozeduraren luzapena salbuespena dela nabarmendu nahi dugu, eta esan behar dugu txosten teknikoak emateko garaian izandako zailtasunen ondorioz gertatu



dela nagusiki (probak egin beharra, teknikarien agenda-arazoak, beren jarduera asistentzialaz gain txostenak egin behar izatea, teknikari informatzaileen kopuru handia...).

Doktrinak berak zehazten duenez, bi hilabeteko epea ez da erabakigarria ezeztagarritasunari dagokionez (LRJAP delakoaren 63.3 artikulua), lizitatzailleek beren eskaintzari gehienez ere zenbat denboraz egon behar duten loturik baino ez duelako arautzen.

- *Guztira 32,9 milioi euroan esleitutako hornidurako 4 espedientetan eta zerbitzuetako 5 espedientetan, kontratuaren formalizazioaren iragarpena epez kanpo egin da BOEn edota ez da egin EBAOn (SPKLTB delakoaren 154. artikulua) (24, 39, 44, 47, 53, 55, 56, 57 eta 58 espedienteak).*

ALEGAZIOA

Ez dago alegaziorik, dagoeneko zuzenduta dago. Akatsa konpontzeko behar ziren neurri zuzentzaileak hartu ditu Osakidetzak eta hala, kontratuen formalizazio guztiak garaiz eta behar bezala argitaratzen dira.

- *Gainera, kontratu txiki gisa izapidetutako inbertsioen erosketan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak aztertutako 17 zerbitzu-erakunderen eta 3,6 milioi euroren kostu osoa kontuan hartuta, honako hau hauteman da: erakunde horien 6 zentrotan eta 1,4 milioi euroan, kontratuaren xedea zatitu egin da eta beraz, ez dira bete kontratazioetarako legeak ezartzen dituen prozedurak. «Erabilera klinikorako makineria» delako kontuan gertatu da kasu horien guztien % 32 (Ikus A.4).*

ALEGAZIOA

Berriro diogu, kontratuaren xedea zatikatu den ala ez erabakitzeko, kasu bakoitzean «unitate operatibo edo funtzional» delakoaren kontzeptua aplika ote daitekeen ikusi behar dela nagusiki. UNITATE OPERATIBO EDO FUNTZIONALA dagoela diogu elementuak xede jakin bat lortzeko bereizezinak direnean edo elementu horiek guztiak ezinbestekoak direnean kontratuaren bidez lortu nahi den horrek behar bezala funtziona dezan. Beraz, ondorengo kasu hauetan kontratua ez da oker zatikatuta egongo: xedeak, aipatutako unitate operatibo edo funtzionalaren bidez, elkarri lotuta ez daudenean, hau da, horietako bat edo batzuk egikaritzea eta ustiatzea ez bada beharrezkoa gainerako beste edozein egikaritzeko eta ustiatzeko (Estatuko Administrazio Kontrataziorako Kontsulta Batzordearen 57/09 txostena); edo bi kontratutako edo gehiagotako xedeak, elkarren artean antzekoak izanik ere, independenteak direnean, hautemandako gorabeheran gertatzen den bezalaxe.

Nabarmendu behar da, zatikapena arautzean, legearen helburua ez dela izaera desberdineko edo berbereko zenbait prestazio kontratu bakar batean artifizialki biltzea; aitzitik, helburua da prozedura irekiak edo negoziatuak arautzen dituzten aginduak publikitate-eskakizunetan aplikatzea saihestera daraman lege-iruzurrik ez gertatzea. Hortaz,



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SPKLTB delakoaren 86.2 artikulua ez du esan nahi bi prestazio edo gehiago, antzekoak badira eta batera egin badaitezke, kontratu berean sartu behar direnik ezinbestean; aitzitik, baldin eta haien artean ez badago lotura operatiborik, bakoitza bere aldetik kontratatu daiteke eta, areago, modu independentean ustiatu ere egin daitezke. Ondorioz, esan daiteke zerbitzu-erakundeek ez dituztela kontratazioak edota erosketak zatikatuta egin eta, uneoro, indarrean dagoen legeak ezarritako xedapenak bete dituztela.

2013AN ETA AURREKO EKITALDIETAN FORMALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK

- *Guztira 30,9 milioi euroan esleitutako obra-espeditante batean, obrak burutzeko hasierako epea luzatu egin da eta, beraz, ezin da bermatu sektore publikoan nagusi den funtsen erabilera eraginkorra (1 espeditantea).*

ALEGAZIOA

Hasierako akta 2012ko martxoaren 1ean sinatu zen eta 2014ko martxoaren 1erako amaituko zela aurreikusten zen (obrak burutzeko 24 hileko epea).

2013ko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sail berriak eta Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak ospitale berriak eskainiko zituen zerbitzuak aztertu zituzten. Plan funtzionalean zenbait aldaketa egitea proposatu zuten eta horrek eragina izan zuen ospitaleko zenbait eremuren diseinuan, aldaketa handia jasan beharko baitzuten, hala nola farmazia, errehabilitazioa, endoskopiak eta larrialdiak. Halaber, bi ospitalizazio-unitatetan infekziosoentzako eta inmunodeprimientzako gelak egitea ere proposatu zuten. Aldaketek espazioaren antolamenduan eta instalazioetan izan zuten eragina eta kontratu-aldaketa bat izapidetzera behartu zuten, 2014ko urtarrilaren 29an. Kontratuaren zenbatekoa aldatu ez bazuen ere, obrak burutzeko epea hiru hilabetez luzatu zuen. Luzapenak 2014ko ekainaren 1ean jarri zuen obrak bukatzeko aurreikusitako eguna.

2014ko apirilaren 15ean obrak gelditu egin ziren. Izan ere, Urdulizko Udalak etorkizunean ospitalerako sarbidea emango duen eta ospitaleko azpiegiturak hartuko dituen bidea egin behar zuen eta horrek gure obretarako sarbidea galarazten zuen. Obrak 2014ko maiatzaren 19an hasi ziren berriro eta 2014ko uztailaren 5ean ziren bukatzekoak.

2014ko abuztuaren 5ean obren gunean bildu ginen Ospitalean harrera egiteko. Egindako obren egoera egiaztatu ostean, egin beharreko azken ukituen zerrenda bat osatu zen. Izan ere aktarekin batera doan eranskinean jasota dauden zenbait akats ikusi ziren bertan eta hutsak konpontzeko epe bat ezarri zen.

Zenbait ekipo martxan jartzeko probak egiteke daude oraindik, hozkailuenak eta transformazio-zentroenak nagusiki, eta eraikinaren martxan jartzearekin lotutako beste zenbait jarduketa ere egin behar da. Arazoa ez da enpresa eraikitzailearena izan: kontua da Ospitalea dagoen lursailak oraindik ez duela energia elektrikoaren hornidurarik. Osakidetza eskakizuna egin zion Iberdrolari baina, trazaduraren konplexutasuna zela-eta, beste alternatiba batzuk bilatu behar izan ziren URA ur-agentziarekin eta beste azpiegitura batzuen trazadurarekin arazorik ez izateko eta obrek Urduliz eta Sopelatik igarotzean berekin ekarriko lituzketen desjabetze- eta zortasun-arazoak murrizteko.



Obraren egoera kontuan hartuta eta epe laburrera hartune elektrikorik izateko aukerarik ez zegoela ikusita, 2014ko azaroaren 25ean obrak HARRERA PARTZIALA egiteko prest zeuden, akatsak konpondutakoan. Egun horretan, egiteke zeuden lanak geldiarazi zituzten, lanak berriro hasi ahal izateko hartune elektrikoa izan artean.

2016ko urtarrilaren 18an berriro lanei ekin eta 3 hilabete eta erdiko luzapena eskatu zen egiteke zeuden lanak bukatu ahal izateko.

III.2 OSATEK

III.2. KONTRATAZIOA

- *Teleasistentzia-kontratuaren luzapen-espeditentean ez da formalizatu 620.545 euroko aldaketa, zeinak esleipenaren gehieneko aurrekontua % 10,3 gainditzea ekarri du. Horrez gain, luzapenaren unean, zenbateko berriak 650.000 euroan gainditzen zuen Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2014an zerbitzu horretarako kudeaketa-mandatuan esleitutakoa.*

ALEGAZIOA

Aldaketa ez formalizatzeari buruz:

Premien arabera egiten den zerbitzu-kontratu bat da eta esleipenduna zerbitzua behin eta berriz eta aleko prezioan ematera behartuta dago. Kontratua egiten denean ezin da guztiz zehaztu zenbat prestazio barne hartuko dituen guztira kontratuaren xedeak, erakunde kontratatzailearen premien arabera direlako prestaziook.

Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren hogeita hamalagarren xedapen gehigarriak (Premien arabera horniduren eta zerbitzuen kontratuak) honako hau ezartzen du:

«Administrazio Publikoek eta sektore publikoko gainerako erakundeek izapidetzen dituzten horniduren eta zerbitzuen kontratuetan, aurrekontu mugaduna dutenen kasuan, enpresaburua ondasun asko ematera edo zerbitzua behin eta berriz eta aleko prezioaren truke gauzatzera behartuta baldin badago, baina kontratuaren xedean bildutako entregean edo prestazioen guztizko zenbatekoa ez badago zehatz-mehatz zehaztuta kontratua sinatzean Administrazioaren premien arabera direlako, gehieneko aurrekontu bat onartu beharko da».



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hala, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duenak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duenak, honako hau ezartzen du 54. artikuluan:

54. artikulua Zuzkiduren izaera

1.- Ustiapen-aurrekontuko nahiz kapital-aurrekontuko zuzkidurak, hurrengo paragrafoan ezarritako salbuespenekin, gutxi gorabeherakoak izango dira, eta kasuan kasuko entitateak aurrekontuaren ekitaldian bere jarduerari buruz egindako aurreikuspenak jasoko ditu.

2.- Jarraian aipatzen diren kontzeptuak mugadunak izango dira beti: finantza-inbertsioak, langile-gastuak, besteren baliabideak, transferentzien eta eman beharreko diru-laguntza arrunten eta kapitaleko diru-laguntzen batura eta ibilgetu material eta ukiezinean egindako inbertsioen batura.

3.- Aldaketak Lege honetako V. tituluko zortzigarren kapituluan ezarritakoaren arabera egin beharko dira. Ondorio horietarako, lehen aipatutako kontzeptu bakoitzerako entitate bakoitzean aurrekontuan jarritako guztizko zenbatekoa joko da mugaduntzat.

Eta 97. artikuluan honako hau dio:

97. artikulua Orotarikoa

1.- Kapitulu honen eraginpeko erakundeen ustiapen- edo kapital-aurrekontuetako aurrekontu-aldaketatzat joko dira Lege honetako 54. artikuluaaren arabera mugadun diren kontzeptuen zenbatekoetan egindako aldaketa guztiak.

Aipatutako espedientea aurrekontu mugaduna duten kontzeptuetan sartzen ez denez, hogeita hamalagarren xedapen gehigarriak ezartzen duen gehieneko aurrekontua onartzeko obligazioa ez da aplikagarria espediente honetan.

Hori guztia dela-eta, aleko prezioaren truke egindako esleipena denez (prezioa/erabiltzailea/eguna), azken zenbatekoa erabiltzaile-kopuruaren arabera denez, eta beraz, esleitutako zenbatekoa gutxi beherakoa denez (erabiltzaile-kopurua x esleitutako prezioa), gorabehera bazter uzteko eskatzen dugu; izan ere, esleipenaren gehieneko aurrekonturik ez dagoenez, ezin da aldaketa impliziturik egin.

Luzapen-zenbatekoak kudeaketa-mandatuan esleitutakoa gainditzeari buruz:

Hasierako kontratuan bezala, Osatekek luzatutako zenbatekoa, 6.650.000,00 euro, gutxi gorabeherakoa zen. Denboraldi horretarako aurreikusten zen erabiltzaile kopuruan oinarritzen zen (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ezagutzen zuen datua) eta ezin da gehieneko aurrekontutzat jo (ikus aurreko alegazioa).



Mandatuan Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak zegokion aurrekontu-partidan azaltzen ziren 6.000.000,00 euroak esleitu behar izan bazituen ere, mandatuak berak aurreikusita zuen, bosgarren ebazpen-zatian, gastu gehigarria onartu beharko zela.- Jarraipen Batzordea, c) puntua:

«Jarraipen Batzordeak mandatua gauzatzeko erabilgarri dagoen kreditua nahikoa ez dela baderitzo, indarraldia amaitu arte mandatua gauzatzeko zenbat diru gehiago beharko den zenbatetsiko du. Hala gertatzekotan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari jakinaraziko zaio zenbatetsitakoa, dagokion gastu gehigarria aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera izapidetzeko».

Hain zuzen, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu zuzendariaren 2014ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bitartez, mandatua aldatu egin zen, urteko zenbatekoa 6.540.932,50 eurora igoz (ebazpena VIII. Eranskinean).

Azkenean, Osatekek 2014an fakturatu eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ordaindutakoa 6.535.979,83 euroko izan ziren.

Edonola ere, teleasistentzia-zerbitzua kontratatzetik sortutako urteko diru-kopuruaren finantzaketari dagokionez, Osatekek Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren konpromisoa du:

«Horregatik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak oraingo eta aurrerantzeko urteko aurrekontuetan zerbitzua emateko beharrezkoak diren kredituak emateko konpromisoa hartzen du. Halaber, finantzaketa-konpromisoak kontuan hartuta, aproposena den moduan helaraziko dizkio kredituak Osatek SARI».

(Konpromisoa IX. Eranskinean)

Horregatik guztiagatik, gorabehera bazter uztea eskatzen dugu. Izan ere, luzapenaren zenbatekoa ez dago kudeaketa-mandatuan hasieran esleitutakoaren baldintzapean.

- *Erresonantzia magnetikorako bobinen mantentze- eta hornidura-espeditenteak aldez aurretik eta osorik ordaindu dira eta inolako bermerik eskatu gabe. Lehenengoa 926.688 euroan eta bi urterako esleitu da eta bigarrena 1,1 milioi euroan eta 4 urterako. Pleguek horretarako baimena ematen badute ere egoerak hala gomendatzen duen kasuetan, ez da horrelako egoera bat justifikatu eta, edonola ere, bermea eskatzea komeni da, SPKLTB delakoaren 216.2. eta 3. artikuluek ezartzen dutena betetzeko.*

Bestalde, lehenengoa ez da jasotzen kontratazio-jarraibideen 4. klausulak ezartzen duen Kontseilu Administrazioaren baimena; klausula horren arabera, kontratuaren balioak urteko 400.000 eurotik gorako ordainketa-obligazioak dituenean, beharrezkoa da baimena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

- *Aldez aurretik ordaintzea aholkatzen zuen egoera justifikatuta ez egoteari buruz:*

Aldez aurretik ordaintzea aholkatzen zuen egoera Osateken aurrezpen ekonomikoari lotuta zegoen.

